

MARRUTXIPIKO ARGITERIAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 20an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Askotan aztertu ditugu gune ilunek edo puntu beltzek eragiten dituzten arriskuak -batez ere berdintasun ikuspegitik- eta horiek ezabatzeko hartu behar diren neurriak.

Otsailean Marrutxipiko bizilagunek auzo-bisita bat egiteko eskaera egin ziguten. Bisita hartan, mantenimendu faltarekin lotutako hainbat arazo erakutsi zizkiguten. Auzoko zonalde zehatz batean argiteriarekin arazo bat zegoela somatu genuen: farolak bizilagunen lur-sailetan jarrita daude eta mantenimendua ez da behar bezala egiten ari. Ondorioz, argi asko fundituta daude eta farola batzuk ez dira ikusten zuhaitzek estaltzen dituztelako.

Gauetz bertatik pasatzen diren pertsonak ezin dute ondo ikusi argia faltagatik eta, zonaldeak dituen ezaugarriengatik (gune ezkutua, mugimendu gutxikoa...), hobekuntzak egitea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Zinegotziari batzordeetan gaia azaldu genionean erantzun zigun argiteria eremu pribatuan dagoenez, Udalak ez duela mantenimendua egin beharrik eta, salbuespen bezala, behin egiteko agindua emango zuela.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala zeinen ardura den aipatutako zonaldeko argiteriaren mantenimendua egitea.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zonaldeko bizilagunei helaraz diezaiela lehenengo puntuan aipatutako azterketaren ondorioa.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

3. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari, argiteriaren mantenimendua Udalari badagokio, zonaldean beharrezkoak diren konponketak egin ditzala puntu kritikoa izan ez dadin.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an



Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia